
PRENTSA OHARRA

2024/2025 ikasturteko helduen kirol eskaintzaren heren bat euskaraz eskainiko da

Aguraingo Udalak 2024/2025 ikasturteko kirol eskaintza aurkeztu du aste honetan, berritasun moduan helduen eskaintzaren heren bat euskaraz eskainiko da

Agurain, 2024-07-31. Aste honetan argitaratu du Aguraingo Udalak 2024/2025 urteko kirol eskaintza. Urtarrilean euskara kontseilua martxan jarri zenetik hainbat erabaki hartu dira hizkuntzaren sozializazio egoki bat aurrera eramateko, horien artean helduen kirol eskaintzaren zati bat euskaraz eskaintzea. Umeen eskaintzari dagokionez ehuneko ehuna euskaraz izatea bermatuta baitago.

Bestaldetik eta berritasun moduan ere, astelehen eta asteazkenetan 19:00etatik 20:00etara running-ean hasteko klaseak eskainiko dira. Batez ere, korrika egin nahi duten eta etengabeko lasterketa mantendu ezin duten pertsoneri zuzenduta. Aldi berean, ohiko saioekin jarraituko dugu aurreko urteetako guztiak mantenduz.

Izen emate epea aste honetan ireki da eta kirolguneko sarreran modu presentzialean edo udaleko web orrialdean telematikoki egiteko aukera egongo da. Horrez gain, saioetan lekua dagoen bitartean ikasturte osoan zehar jarraituko du epea zabalik.



NOTA DE PRENSA

Un tercio de la oferta deportiva para personas adultas del curso 2024/2025 se ofrecerá en euskera

El Ayuntamiento de Agurain ha presentado esta semana la oferta deportiva del curso 2024/2025, como novedad un tercio de la oferta para personas adultas se ofrecerá en euskera

Agurain, 31-07-2024. Esta semana el Ayuntamiento de Agurain ha publicado la oferta deportiva para el curso 2024/2025. Desde que en enero se pusiera en marcha el consejo de euskera, se han ido tomado varias decisiones para llevar a cabo una adecuada socialización de la lengua, entre ellas ofrecer parte de la oferta deportiva para las personas adultas en euskera; ya que la oferta infantil está garantizada al cien por cien en euskera.

Por otro lado, y también como novedad, los lunes y miércoles se ofrecerán clases de running de 19:00 a 20:00. Sobre todo, dirigido a personas que quieran correr y no sean capaces de mantener una carrera continua. Al mismo tiempo, se mantienen las sesiones habituales de años anteriores.

El plazo de inscripción se ha abierto esta semana y se podrá realizar en la entrada del complejo deportivo de forma presencial, para quienes lo prefieran también de forma telemática a través de la página web municipal. Además, seguirá abierto el plazo durante todo el curso mientras haya espacio para las sesiones.